

<b>Ekipoa</b>	<b>Finen bahe autogarbitzailea</b>
<b>Kodea</b>	A-1011
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	<p>Hondakinen sorkuntza minimizatzen da.</p> <p>Uraren kontsumoa murrizten da, eta aipatutako baliabidea modu efizienteagoan kontsumitzen da.</p>
<b>Honetan datza:</b>	<p>Hondakin-uren aurretratatamendua ekipoek ondo funtzionatzeko hondakin-uren tratamenduko ezinbesteko etapa bat da.</p> <p>Hondakin-ura sartzeko kutxatilara mota guztietako materialak iristen dira: adarrak eta hostoak, paperak, olioak eta koipeak, partikulak... Horiek hondakin-uren funtzionamendua aldatu edo moteldu dezakete eta esperotako emaitzak lortzea eragotzi. Aurretratatamendua oso garrantzitsua da eta ez da komenigarria prozesuaren zati hori saihestea. Horretarako, hainbat teknologia erabiltzen dira, baheak, kasu.</p> <p>Baheek arbastatzearen antzeko funtzioa betetzen dute (solido jalkikor eta flotatzaile lodienak erretiratzeko aurretratatamendu mekanikoa): ura iragazten dute, uretan solido eseki gehiegi izatea saihesteko. Bahe bat erabiltzearen helburua solido horiek erretiratzeta da, araztegiak babesteko aurretiazkoetapa gisa; bolumen handiko elementuak eta solidoak erretiratzeta, bereiztea eta erraz ebakutzeta, araztegia buxatzeko arriskua saihesteko.</p> <p>Gaur egun, hainbat motatako eta modelotako baheak daude, baina, ingurumen aldetik ohiko baheak baino teknologia onuragarriagozat jo ahal izateko, ezaugarri batzuk eduki behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Diseinu simple eta sendoko teknologiak izan behar dute, existitzen diren kanalen barruan zuzenean instalatu edo bertara egokitzeko modukoak eta uretan dauden solido esekiak bereizi, erauzi eta deskargatu behar dituzte.</li> <li>- Gorputza, bahea edo pantaila iragazlea, uradura bidez higitzea saihesteko diseinatuta dago, eta, horregatik, erresistentzia handiko iragazte-elementuz osatuta, adibidez: ABSz edo bestelako material bereziz. Hor egiten da bahetzea, jariakinak daramatzan solidoak bereziz.</li> <li>- Garbiketa-sistematik behar ez duten bahe autogarbitzaileak, funtzionamendu eraginkorrekoak, iraupen luzekoak, ia ez dute zaintzarik behar eta mantentze minimoa eskatzen dute. Sistema horiek funtzio bikoitza daukate: iragazlea eta autogarbitzailea.</li> </ul> <p>Sistema horiek bi funtzio dituzte: iragazlea eta autogarbitzailea. Sistema horien adibidea dira «hortz» izeneko elementu iragazle bat duten baheak; elementu hori ondoz ondoko bi ardatzen gainean muntatzen da eta horien muturretan pantaila iragazlearen arraste-kateak doaz. Hortza diseinatzea eta hura pantaila iragazlean muntatzea iragazketako bi etapa dira, erauztekoa</p>



	<p>den solidoaren tamaina baldintzatzen dute eta baheko zuloen neurria definitzen dute.</p> <p>Hortzek mugimendu bikoitza egiten dute, hortz bakoitza eta hortz-lerro bakoitza ondoz ondoko bi ardatzen gainean muntatzearen eta pantailaren biraketa-mugimenduaren ondorioz, eta hala:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Aurreranzko lehenengo mugimenduan, ateratako solidoak deskargatzen dira eta</li><li>▪ Atzeranzko bigarren mugimenduan, hortzak beraiek eta pantaila osoa garbitzen dira.</li></ul> <p>Autogarriketa-sistema honi esker, likidoaren korronteko pantaila beti garbi egoten da.</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</b>	<p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori ezartzea eskatzen zaien jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan zehaztutako emisioen muga-balioak betetzeko ezarri nahi dutenak ere.</p> <p>Efluenteko solidoak iragaztea beharrezkoa den sektore guztietan aplikatu daiteke, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Ospitale eta kliniketan (EJSN 86).</li><li>- Zur-industrietan (EJSN 16).</li><li>- Elikagai-industrietan (EJSN 10).</li></ul> <p>Ur prozesatua erabiltzen duten mota guztietako industria-enpresetan (EJSN 10, 11, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 24).</p>